



# ARANTZAKO UDALA

## ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO ETA FINKATZEKO EZOHICO PROZESUARI DAGOZKION LANPOSTU HUTSAK MEREZIMENDU-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO DEIALDIA

### MEREZIMENDUEN BEHIN-BEHINEKO BALORAZIOARI BURUZKO AKTA

Arantzan, 2023ko abuztuaren 10ean.

- **TOKIA:** Arantzako Herriko Etxea.
- **EGUNA:** 2023ko abuztuaren 10a.
- **ORDUA:** 15:00
- **BERTARATUAK:**
  - Epaimahai burua: Dabid Iturria Almandoz
  - Mahaikidea: Jose Joaquin Urreta Arribillaga
  - Mahaikidea-idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

Epaimahai Kalifikatzailea bildu da, aldi barerako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesuari dagozkion lanpostu hutsak merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko merezimenduen behin-betiko balorazioa egiteko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

Merezimendu-lehiaketaren kalifikazioa amaitu ondotik, Arantzako Udalaren web orrian argitaratu zen behin behineko balorazioa, 2023ko uztailaren 19an. Horrela bada, bortz egun balioduneko epea iragan da alegaziorik aurkeztu gabe.

Izangaiek egindako merezimenduen autobalorazioa ikusi eta egiaztatu ondoren, hau izan da lortutako behin betiko puntuazioa:

HAUTAGAIA	Merezimendu profesionalak		Bertze Merezimendu batuzk		Zuzenketa faktorea	GUZTIRA
	a.1.	a.2.	b.1.	b.2.		
ESTIBALIZ URCHEGUI TELLETXEA	6,86	-	-	-	-	6,86

Ondorioz, Epaimahai Kalifikatzaile honek erabaki du:

- 1.- Estibaliz Urchegui Telletxeari eskatzea Arantzako Udalak hasitako egonkortze-prozesuan garbitzaile lanpostua merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdian eskatutako tituluak dituela egiaztatzeko.
- 2.- Deialdian eskatutako dokumentazioa aurkeztu ezean, ikusirik hautagai gehiago ez daudela, egonkortze-prozesua bertan behera geldituko da, honako hau hutsik geldituz.
- 3.- Ohartaraztea deialdi honen 8.4. oinarrian xedaturikoaren arabera, prozedura honetatik ez dela aldi baterako izangaien zerrendarik eratuko.
- 4.- Akta hau Arantzako Udalaren web guneko egonkortze prozesuko dagokion estekan argitaratzea.

**EPAIMAHAI BURUA,**

**MAHAIKIDEA,**

**MAHAIKIDEA-IDAZKARIA,**

Dabid Iturria Almandoz

Jose Joaquin Urreta Arribillaga

Nagore Madariaga Iriarte